

43. EUSKAL JAIA EIBARREN



Dantzari eibartarrak emanaldi batean, York hiriko leku ikusgarrietan. [IÑAKI ZUGASTI]

Ingalaterratik Untzagara zazpi egunetan

Kezka Dantza Taldeak arrakasta lortu zuen Ingalaterran eta orain, Euskal Jaian parte hartzeko prest bueltatu da

FÉLIX MORQUECHO

EIBAR. DV. Euskal Jaia bere egunik garrantzitsuenak ospatuko ditu asteburu honetan eta ekitaldi askoren artean, dantzak dira jende gehien biltzen dituenetako bat. Aurten arku dantzak izango dira nagusi *Ezpalak* dantza jaialdiaren barne, Eibar eta Iruñako dantza taldeak antolatuta. Nafarroan bihar izango da emanaldia eta Eibarraren igandeetan, zortzi taldeen dantzak aurkeztuz.

Baina etxeko dantzariak, Kezka Dantza Taldeakoak, oso momento berezian ailegatzeko dira Euskal

Jaiara. Joan den asteburuan Ingalaterran egon ziren Sword Spectacular jaialdian parte hartzeko. Bueltan, Oier Araolazak horrela deskribatzen du esperientzia. «Emanaldiak izugarri joan dira, jendearen eta beste taldeen harri oso ona izan da. Harritu dira gure ezpatadantzarekin eta behin eta berriz zoriondu gaituzte emanaldi guztietan. Bukaeran balorazioa egiterakoan guztiak azpimarratzen zuten Euskal Herriko taldea, 'The Basque team'».

Dena dela, lana kostatu zaie horrelako maila ematea. «Guretzat gogorra izan da. Ez gaude ohitu-

ta hainbeste aldiz dantza egitera. Kontuan hartu behar da beste ezpatadantza batzuk ez direla fisikoki hain exijenteak» aipatzen du. Guztira, Kezkako lagunek lau aldiz egin zuten dantza larunbatean eta beste lau igandeetan. «Pila da guretzat, baina preparatuta joan ginen rotazioak egiteko, lesioei aurre egiteko... Ondo neurtu dugu eta gure jendea benetan zoragarririk portatu da».

Arku dantzen argazki ona

Horrelako ekitaldian parte hartu eta gero ez dago atsedetik, Euskal Jaia gainean dago eta. «Bete be-

tean sartuta gaude asteburukoarekin, ilusio askorekin gainera». Aurten ere programa polita prestatu delakoan, Iruñako Duguna Dantza Taldearekin elkarlana indartu egin da. *Ezpalak* jaialdiaren barne hamabi taldek parte hartuko dute, horietatik zortzi Eibarraren.

«Kanpoko taldeentzat, Iruña reklamo garbixeagoa da. San Fermínak direla eta, oso ezaguna da atzerrian ere eta horrek asko erretzen du lana» azaltzen du ierrek. «Aurtengo programa oso argazki ona izan daiteke arku dantzak zer diren ikusteko. Programa oso orekatua da eta taldeak oso desberdinak». Aukera honetan, mendez mende dantza egin duten herrietatik etorriko dira, baita talde estrukturgarriak ere.

GAUR

- ▶ **17:30tik 19:30ra:** Kalia jolasian. 5 eta 8 urte arteko umeentzat.
- ▶ **20:30:** Filamento farolaria, clown eta mimoa, kalean edo karpan.

BIHAR

- ▶ **10:00etatik 14:00etara:** Artisau eta baserritarren azoka Toribio Etxebarria kalean.
- ▶ **12:00:** herri kirolak eta bertsolariak.
- ▶ **13:00:** eskolen arteko herri kirol lehiaketa.
- ▶ **19:30:** Zpeiz Mukaki, kale animazioa.
- ▶ **22:00:** Kantu afaria karpan eta ostean erromeria.

«Kontraste horrek esparru guztia erakusteko aukera ematen digu». Taldeak Frantzia, Galizia, Burgos, eta Kanarietatik datoz alde batetik eta Iruña, Añorga, Oñati eta Eibartik bestetik.

Bereziana aukeratzekotan, Oier Araolazak ez du erraz topatzen. «Gure artean, egia esan, ez gara ados jartzen. Nik pertsonalki uste dut Betanzosekoa izan daitekela talderik espektakularrena, baina antolaketan buru belarri dabilte, Burgosekoekin dute itxaropen gehiago talde eginagoa delako eta prestigiodun talde bat delako». Baina etxekoan artean, zera dio, «Añorgakoa da Euskal Herriaren punta puntako taldea, goi mailako dantzariak dauzka, batzuk Euskal Herriko dantzari onenen artean daudenak». Eta Eibarkoak, aurten Ibarzabal izeneko arku dantza aurkeztuko dute. «Orain dela ehun urte, dantza hura gizonak egin zuten. Gero neskek egin dute eta orain guk bi jarrera horiek lotuko ditugu eta neska eta mutilek egingo dugu dantza. Gainera Arrateko jantziekin egingo dugu».

Gaur jokoak eta antzerkia

Euskal Jaia asteburura hasiera emateko, gaur arratsaldean umeak jokatzeko aukera izango dute. Txikiak eta haien gurasoak parte hartzera deituak daude, betiko jokoetan parte hartzera. Beste aldetik, Arrate Kultur Elkarteak prestatutako ekitaldian *Filamento Farolaria* ikuskisuna emango du Xabi Larrea clown eta mimoa, kalean edo karpan eurria badago. ■

Las fiestas de Urki arrancan hoy con temas de AC/DC

Varios actos para niños y para las personas mayores dan inicio a las fiestas de este barrio

F.M.

EIBAR. DV. El patio del colegio Virgen de Arrate será escenario hoy de la apertura de las fiestas de Urki. Será a las 19.00 horas aunque en esta edición no habrá cañonazo. Los cabezudos, la música de la fanfarre Ustekabe y la fiesta infantil con los payasos Potxin eta Patxin serán los ingredientes para los primeros pasos de la fiesta. Por otra

parte, el hogar del jubilado de este barrio acogerá el tradicional homenaje con el que se abren las celebraciones. Con la fiesta puesta en marcha, la fanfarre Sugarri animará el tiquiteo.

La primera cita musical de las fiestas llegará esta noche con un concierto rock. El grupo eibarrés Norman será el encargado de caldear el ambiente desde el escenario del patio de la Virgen de Arrate, en torno a las 23.15 horas. Tras ellos llegará el turno del grupo The Bond Scott Band, una banda que recupera las canciones de la mítica banda AC/DC. Los amantes de estos clásicos del heavy tendrán ocasión de disfrutar con una formación reconocida en su tributo, con varios discos publicados y cen-



Los más jóvenes podrán disfrutar de un festivo fin de semana repleto de actividades. [FÉLIX MORQUECHO]

tenares de actuaciones a sus espaldas.

Mañana se celebrará el día del niño, con juegos y atracciones a mitad de precio. A mediodía se cele-

bra la tradicional chorizada con caldo y por la tarde llegará uno de los atractivos más populares, la fiesta del cava y el langostino, con la animación de Río Samba Show.

Desde las 19.30 horas, los bares ofrecen cava a precio de chiquito de vino y langostinos como acompañamiento. Por la noche, Passionata pondrá la música. ■